

## BBVA Bildumaren “El sembrador” (Ereilea) mosaiko monumentala sartu du bere erakusketa iraunkorrean San Telmo Museoa

*Museoko zuzendari Susana Sotok eskerrak eman dizkio BBVAren Gipuzkoa Eremuko zuzendari Iñigo Aldasorori “Ereilea” mosaikoa gordailuan uzteagatik. Aurelio Artetak izen bereko pieza egin zuen freskoan egindako hamabi muraletako batean, eta mural horiek 1923az geroztik dekoratzen dute Banco de Bilbao erakundearen eraikin zaharra Madrilgo Alcalá kalean*

Museoa gordailuan jaso du “Ereilea” mosaikoa, BBVA Bildumak utzitako pieza, eta “Tradizioak bizirik dirau” atalean instalatu dute, Gipuzkoako XVI. mendeko baserri tipiko baten erreproduzioa ikus daitekeen aretoan, “Berrito igo nauzu” ikus-entzunezkoaren proiektioarekin batera.

Mosaiko handi bat da, eta Aurelio Arteta (Bilbo, 1879 – Mexiko, 1940) pintore bilbotarrak hogeiko hamarkadako hasierako urteetan Banco de Bilbao erakundearen Madrilgo egoitzarako egin zuen irudietako bat irudikatzen du, 1921ean hasitako obraren barruan. BBVA Bildumarena da gaur egun mosaiko monumentala eta San Telmo Museoa erakutsiko da gordailu honi esker hiru urteko aldian. 3,20 metro zabal ditu mosaikoak, eta 1,90 metroko altuera du, eta osatzen duten teselak hainbat materialez eginda daude, hala nola zeramika, harria edo terrakota.

Banco de Bilbao zaharraren egoitzaren atondoko dekorazio-zikloa osatzen duten pintura muralen hamabi eszenetako bat da ‘Ereilea’. Serie horretan daude, halaber, ‘El trabajo intelectual’ (Lan intelektuala), ‘La recolección’ (Uzta), ‘Las cargadoras del muelle’ (Kaiko emakumezko zamaketariak), ‘Los descargadores’ (Zamaketariak), ‘El astillero’ (Ontziola), ‘La fundición’ (Fundizioa), ‘El ferrocarril’ (Trena), ‘La arribada del pesquero’ (Itsasontziaren porturatzea), ‘Pescadores en el muelle’ (Arrantzaleak kaian), ‘La mina’ (Meatzeta) eta ‘Las artes’ (Arrantza-aparailuak). Aurreko hamarkadaren hasieran zaharberritu zituzten hamabi obrak, obren laurogeigarren urteurrena zela eta.

Pintura-multzo hori [Emile Verhaeren](#) belgikarraren “*L’effort*” poemari inspiratu da:

*Eta zu, herri zurietako nekazari zaharra,  
Soroak eta bidexka arinak baino maite ez dituzuna.  
Eta bertara hazia zure esku zabalekin jaurtitzen diharduzuna,  
Airera lehenbizi, zure aurrean eta argiaren aldera, huts eginez  
Lurrera erori aurretik argiaren baitan bizi dadin pixka batez*

(poemaren zatia)

Tratamendu bat egin behar izan da obrak San Telmo Museoa instalatzeko, hau da, garbiketa kimiko eta mekaniko bat, eta askatutako teselen kontsolidazio eta berrintegrazio bolumetrikoko bat. Piezaren pisua modu homogeneoan banatuko duen muntatze-sistema berri bat ere diseinatu da, pieza “Tradizioak bizirik dirau” ataleko baserriaren aretoko erakusketagune berrira egokitzeko.

## San Telmo Museoa incorpora a su exposición permanente “El sembrador”, mosaico monumental de Colección BBVA

*La directora del museo, Susana Soto, ha agradecido al director de Zona de Gipuzkoa de BBVA, Iñigo Aldasoro, el depósito del mosaico “El sembrador”, que tiene su pieza homónima en uno de los doce murales al fresco realizados por Aurelio Arteta que desde 1923 decoran el edificio del antiguo Banco de Bilbao en la calle Alcalá de Madrid*

El museo ha recibido en depósito el mosaico “El sembrador”, pieza cedida por Colección BBVA, que se ha instalado en la sección “La tradición pervive”, en la sala donde se puede ver la reproducción de un caserío típico de Gipuzkoa del siglo XVI, así como la proyección del audiovisual “Berriro igo nauzu”.

Se trata de un gran mosaico que representa una de las imágenes que el pintor bilbaíno Aurelio Arteta (Bilbao, 1879-México, 1940) realizó a comienzos de los años veinte para la sede madrileña del Banco de Bilbao, obra que comenzó en 1921. El monumental mosaico pertenece actualmente a la Colección BBVA y se exhibe en el Museo San Telmo gracias a este depósito por un período de tres años. El mosaico mide 3,20 metros de ancho por 1,90 de alto y las teselas que lo componen son de diversos materiales como cerámica, piedra o terracota.

‘El sembrador’ es una de las doce escenas de las pinturas murales que componen el ciclo decorativo del vestíbulo de la sede del antiguo Banco de Bilbao. A esta serie pertenecen también ‘El trabajo intelectual’, ‘La recolección’, ‘Las cargadoras del muelle’, ‘Los descargadores’, ‘El astillero’, ‘La fundición’, ‘El ferrocarril’, ‘La arribada del pesquero’, ‘Pescadores en el muelle’, ‘La mina’ y ‘Las artes’. Las doce obras fueron restauradas a comienzos de la pasada década con motivo de su ochenta aniversario.

Este magnífico conjunto pictórico está inspirado en el poema “L’effort”, del belga Emile Verhaeren:

*Y tú, labrador antiguo de los pueblos albicantes,  
Que no amas sino los campos y sus caminos livianos.  
Y que arrojas la semilla con la amplitud de tus manos,  
Primero al aire, ante ti y hacia la luz, donde yerra  
Porque en ella viva un poco antes de caer en tierra*

(fragmento del poema)

Para su instalación en el Museo San Telmo se ha efectuado un tratamiento que ha consistido en una limpieza, química y mecánica, una consolidación y reintegración volumétrica de las teselas desprendidas. También se ha diseñado un nuevo sistema de montaje que reparta de forma homogénea el peso de la pieza, para adecuarla a su nuevo espacio expositivo en la sala del caserío, de la sección ‘La tradición pervive’.